



**BEASAINGO UDALAREN ETA LOREA
KIROL KLUBAREN ARTEKO
HITZARMENA DIRU LAGUNTZA
NOMINATIBOA JASOTZEKO**

**CONVENIO DE SUBVENCIÓN
NOMINATIVA ENTRE EL
AYUNTAMIENTO DE BEASAIN Y
LOREA KIROL KLUBA**

Beasainen, 2024ko maiatzaren 25an.

En Beasain, a 25 de mayo de 2024.

HONAKOAK BATZARTUTA

REUNIDOS

Alde batetik, Leire Artola Ugalde anderea, Beasaingo Udaleko Alkate-Presidentea, 35779121E NAN zenbakiduna, **BEASAINGO UDALAREN** ordezkari gisa (IFK: P2002100B, hitzarmen honen helburuetarako helbidea: San Martin Plaza, 1, PK 20200, Beasain), 7/85 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21. artikuluan esleitzen dizkion ahalmenak baliatuta, hitzarmen hau sinatzeko gaitasun osoarekin esku hartzen duena. Hitzarmen hau sinatzeko Mariola Pascual Paredes andereak, Herritarrak arloko zinegotzi delegatuak, gaitasun osoarekin esku hartzen du, Alkateak 2023-7-3an emandako 2023/1116 Ebazpenak baimenduta.

De una parte, D^a Leire Artola Ugalde, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Beasain con D.N.I. nº 35779121E en representación del **AYUNTAMIENTO DE BEASAIN**, CIF P2002100B, con domicilio a efectos del presente convenio, en la calle San Martin Plaza, nº 1, CP 20.200 de Beasain, actuando conforme a las atribuciones que le confiere el artículo 21 de la Ley 7/85, reguladora de las bases del régimen local, interviene con capacidad plena para la firma del presente convenio. Interviene con capacidad plena para la firma del presente convenio D^a Mariola Pascual Paredes, concejala delegada de Ciudadanía, autorizada por Resolución de Alcaldía 2023/1116 del 3-7-2023.

Bestalde, **LOREA KIROL KLUBA** G20657490 IFK zenbakiduna eta egoitza Beasainen duena, Erauskin Kalea, 6an helbidean, egintza honetan Jose Maria Ruiz Jimenez jauna jaunak/andreak ordezkaturak, adinez nagusia dena, 15956526T NAN zenbakiduna, helburu hauetarako helbidea Beasainen Erauskin Kalea, 6an duena eta ordezkaritza Batzar Orokorraren bileran burututako ahalmenen eskuordetzearen arabera jarduten duena.

De otra parte, **LOREA KIROL KLUBA** con C.I.F. número G20657490 y con domicilio en Beasain, Erauskin Kalea, 6, representada por Don Jose Maria Ruiz Jimenez, mayor de edad, y titular del documento nacional de identidad número 15956526T, con domicilio a estos efectos en la calle Erauskin Kalea, 6 de Beasain y cuya representación ostenta en virtud de la delegación de facultades realizada a su favor en la reunión de la Junta General.

Esku hartzaileek nahikoa gaitasun aitortzen diote elkarri egintza honetan ordezkatzeko dituzten erakunde izenean hitzarmen hau izenpetzeko eta, helburu horretarako,

Los intervinientes se reconocen capacidad y representación suficiente para suscribir en nombre de las instituciones que en este acto representan el presente convenio y,



HONAKO HAU ADIERAZI DUTE

MANIFIESTAN

I) Espainiako Konstituzioak 43.3 artikuluan adierazten du botere publikoek herritarren bizi baldintzak hobetzeko ekintzak sustatuko dituztela.

I) La Constitución Española señala en su artículo 43.3 que los poderes públicos fomentarán acciones que mejoren las condiciones de vida de los ciudadanos.

II) 38/2003 Legeak, diru laguntzen lege orokorrak, 22.2.a) artikuluan aurreikusten du toki erakundeek aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako diru laguntzak zuzenki emateko aukera.

II) Que en el artículo 22.2.a) de la Ley 38/2003, general de subvenciones se prevé la posibilidad de concesión directa de las subvenciones previstas nominativamente en los presupuestos de las entidades locales.

III) 38/2003 Legeak, diru laguntzen lege orokorrak, 28. artikuluan xedatzen du hitzarmena izango dela toki erakundeek aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako diru laguntzak bideratzeko ohiko tresna.

III) Que en el artículo 28 de la Ley 38/2003, general de subvenciones se configura el Convenio como instrumento habitual para canalizar las subvenciones previstas nominativamente en los presupuestos de las entidades locales.

IV) Beasaingo Udaleko 2024ko aurrekontuaren transferentzia arruntan eranskinean diru laguntza nominatibo bat aurreikusi da LOREA KIROLO KLUBAren alde, wu-shu kung-fu sustapenaren helburuarekin.

IV) Que en el Anexo de Transferencias corrientes del presupuesto del Ayuntamiento de Beasain para el año 2024, se prevé una subvención nominativa a LOREA KIROLO KLUBA para la promoción del wushu kung-fu.

V) Elkartek garatzen dituen jarduerak eta diru laguntza honen xede direnak Beasaingo Udalerriaren diru laguntzak emateko eskumen alorren barne daude, Beasaingo udalerriaren wu-shu kung-fu sustapenaren helburua duen proiektua baita eta, ondorioz, udalari dagokion eskumena da, honakoetan xedatutakoaren arabera: 7/85 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 25.2.1) artikuluan xedatutakoa; 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17.1.19) artikuluan xedatutakoa; Beasaingo Udaleko 2024ko aurrekontuaren transferentzia arruntan eranskinean xedatutakoa; eta 2023-2025 Diru Laguntzen Plan Estrategikoan xedatutakoa, Alkatetzaren 2022ko abenduaren 13ko 2022/1979 Ebazpen bidez onartu zena, "JARDUERA FISIKOA ETA AISIALDIA SUSTATZEKO ETA

V) Que las actividades que desarrolla el club y que son objeto de esta subvención se encuentra dentro de los ámbitos sobre los que el Ayuntamiento de Beasain puede conceder subvenciones, por tratarse de un proyecto cuyo fin es la promoción del wushu kung-fu en la localidad de Beasain, siendo una competencia propia del municipio contemplada en el artículo 25.2.1) la Ley 7/85, reguladora de las bases del régimen local y el artículo 17.1.19) de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, así como, en el Anexo de Transferencias corrientes del Presupuesto General del Ayuntamiento de Beasain para el ejercicio 2024 y en el Plan Estratégico de Subvenciones 2023-2025, aprobado por Resolución de Alcaldía 2022/1979 de fecha 13 de diciembre de 2022 que



BULTZATZEKO” helburu estrategiko gisa ezarrita eta, hartara, diru laguntza hau 5. ildoaren 5.1. jarduketan barne hartuta.

contempla como objetivo estratégico la “PROMOCIÓN Y FOMENTO DE LA ACTIVIDAD FÍSICA Y DE OCIO” encuadrándose esta subvención en la Línea 5, actuación 5.1.

Aurreko guztia kontuan hartuta, lankidetzaz hitzarmen hau izenpetu da jarraian adierazitako klausulen arabera.

En base a todo lo que se acaba de exponer, se suscribe el presente Convenio de colaboración, que habrá de regirse por las siguientes,

KLAUSULAK

CLÁUSULAS

LEHENA. HITZARMENAREN XEDEA

PRIMERA. OBJETO DEL CONVENIO

Hitzarmen honen xedea da LOREA KIROLO KLUBAri 2.250,00 euroko diru laguntza nominatiboa ematea, jarraian adierazitako jardueren garapen eta egikaritzetik eratorritako gastuen finantzaketan laguntzeko helburuarekin:

El objeto del convenio es conceder a LOREA KIROLO KLUBA una subvención nominativa por un importe cierto de 2.250,00 euros con el fin de colaborar en la financiación de los gastos derivados del desarrollo y ejecución de las actividades que se enumeran a continuación:

-Beasainen wu-shu kung-fu jarduera antolatzea eta sustatzea.

-Organizar y promocionar la actividad de wu-shu kung-fu.

-Txapelketetan klubaren partaidetza.

-Participación del club en las competiciones.

-Klubaren gizarte garapena.

-Desarrollo Social del club.

BIGARRENA. BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK

SEGUNDA. OBLIGACIONES Y COMPROMISOS

Beasaingo Udalaren betebeharrak dira:

Son obligaciones del Ayuntamiento de Beasain:

Adostutako zenbatekoa duen diru laguntzaren ordainketa burutzea LOREA KIROLO KLUBAren alde, hitzarmena sinatu ondoren, Hitzarmen honen hirugarren klausulan adierazitako ordainketa modua baliatuta.

Hacer efectivo el abono de la subvención en la cuantía acordada a favor de LOREA KIROLO KLUBA, una vez firmado el convenio, mediante la forma de pago que se establece en la Cláusula Tercera del presente Convenio.

LOREA KIROLO KLUBAren betebeharrak dira:

Son obligaciones de LOREA KIROLO KLUBA:

1) 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak,

1) No estar incurso, ni incurrir en el



diru laguntzen lege orokorrak, 13. artikuluan xedatutako onuradun izateko debekuetan adierazitako egoeretan ez egotea, une honetan eta hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, eta Udalarekiko zerga betebeharrak egunean izatea.

2) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

3) Udal organo eskudunak edo udal kontuhartzailtzak burututako egiaztapen eta kontrol jarduketak onartzea, organo hauek, emandako zenbatekoen erabileraren fiskalizazio eta kontrolerako eginkizunak baliatuta, eska diezaioketen informazio guztia emateko betebeharra izanda, 38/2003 Legean xedatutakoaren arabera.

4) Udalari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko jasotako bestelako diru laguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak. Jakinarazpen hori laguntzak ezagutu bezain laster burutu beharko da eta, edonola ere, jasotako funtsei emandako erabileraren justifikazioaren aurretik.

5) Diruz lagundutako jarduerak burutzea.

6) Jasotako funtsen erabilera justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, kontrol eta egiaztapen jarduketaren helburu izan daitezkeen heinean.

7) Diruz lagundutako jardueren finantzaketaren izaera publikoa behar bezala adierazi eta hedatzea, Beasaingo Udalak helarazitako anagrama eta logotipoak karteletan, oroipen plaketan, inprimatutako materialetan, bitarteko elektroniko eta ikus-entzunezkoetan eta komunikabideetako aipamenetan erabilita.

8) Diru laguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan, jasotako funts publikoak itzultzea.

9) Eginkizunen garapenean eragin litezkeen kalte eta guztiak estaltzeko

periodo de vigencia del presente Convenio, en las prohibiciones para la obtención de la condición de beneficiario del artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y estar al corriente de sus obligaciones fiscales con el Ayuntamiento.

2) Estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

3) Someterse a las actuaciones de comprobación y control que realice el órgano municipal competente o la intervención municipal, estando obligado a facilitar toda la información que le sea requerida por estos en el ejercicio de las funciones de fiscalización y control del destino de las cantidades libradas, de conformidad con los términos regulados en la Ley 38/2003.

4) Comunicar al Ayuntamiento la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca, y en todo caso, antes de la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

5) Realizar las actividades para las que se concede la subvención.

6) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos en los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de control y comprobación.

7) Dar adecuada publicidad y difusión del carácter público de la financiación de las actividades subvencionadas mediante el uso de los anagramas y logotipos facilitados por el Ayuntamiento de Beasain en carteles, placas conmemorativas, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales y menciones en medios de comunicación.

8) Proceder al reintegro de los fondos públicos recibidos en los supuestos contemplados en el artículo 37 da Ley general de subvenciones.

9) El club concertará una Póliza de Responsabilidad Civil que cubra todos los



moduko erantzukizun zibileko poliza bat izenpetzea.

10) Jarduera guztietan Legeak eskatzen dituen segurtasun neurriak hartzea, erabiltzaile eta ikusleen segurtasuna babestuta.

11) Elkarateak euskararen erabilera sustatuko du programatutako jardueretan. Betiere honakoak kontuan hartuta: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzak; indarrean dagoen Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Udal Ordenantza; eta Beasaingo Udalaren Euskara Sustatzeko Ekintza Plana.

12) Elkarateak kontuan hartuko ditu berdintasun irizpideak (1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legea onartzen duena) bai elkaratearen baitan zein sustatutako proposamenen egikaritzean ere.

13) Kirol Sariak: Udalaren interesa izanik, Beasainen edo Beasaingo pertsona eta entitateek kirol alorrean egindako lan publikoki aitortzea, Elkarateak iniziatiba horretan aktiboki parte hartzeko konpromisoa hartu du eta horretarako pertsona arduraduna izendatuko du. Izangai edo izangai batzuk Elkarateak aurkeztuko ditu kategoriatan bakoitzeko ezartzen diren sarietarako, adieraziz horiek lortutako merezimenduak zeintzuk diren.

HIRUGARRENA. DIRU LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA ORDAINKETA

Hitzarmen honen lehen klausulan adierazitako jarduerak garatzeko helburuarekin, Beasaingo Udalak, LOREA KIROL KLUBAren aldeko diru laguntza nominatibo gisa, 2.250,00 euro ordainduko ditu, jarraian adierazitako moduan:

daños y perjuicios que se puedan ocasionar en el desempeño de sus funciones.

10) Corresponderá al club adoptar en todas sus actividades las medidas de seguridad exigidas por la Ley, salvaguardando la seguridad de los usuarios y espectadores.

11) La asociación potenciará el uso del euskera en las actividades programadas. Teniendo en cuenta la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera y deberá cumplir con la Ordenanza Municipal de Promoción y Normalización del Uso del Euskera vigente y con el Plan de Acción para la Promoción del Euskera del Ayuntamiento

12) La asociación tendrá en cuenta criterios de igualdad (Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo por el que se aprueba la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de violencia machista contra las mujeres) tanto en su seno como en la ejecución de las propuestas que promuevan.

13) Kirol Sariak: Es interés del Ayuntamiento reconocer públicamente la labor realizada en el ámbito deportivo por personas y entidades de Beasain, en este sentido, el Club se compromete a participar activamente en esta iniciativa y designará a la persona responsable para ello. Algunos aspirantes serán presentados por el Club para los premios que se establezcan en cada categoría, con indicación de los méritos obtenidos por los mismos.

TERCERA. IMPORTE Y PAGO DE LA SUBVENCIÓN

Para el desarrollo de las actividades enumeradas en la Cláusula Primera del presente Convenio, el Ayuntamiento de Beasain aportará, en concepto de subvención nominativa a favor de LOREA KIROL KLUBA la cantidad de 2.250,00 euros, cuyo abono se efectuara de la siguiente forma:



- 1.250,00 euroko zenbatekoa ordaindu egingo da, hitzarmena sinatu ondoren, ordainketa aurreratu gisa, betiere egiaztatu bada onuradunak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

- La cantidad de 1.250,00 euros, que se hará efectiva tras la firma del convenio como pago anticipado, siempre que el beneficiario acredite estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22 artikuluan eskatzen den egiaztapena, dagokion Ogasunarekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen inguruan, Udalak egiaztatuko du datuen bitartekaritzarako plataformetan edo horretarako gaitutako beste sistema elektroniko batzuetan kontsulta eginez.

La acreditación del cumplimiento de las obligaciones tributarias con la Hacienda correspondiente y frente a la Seguridad Social, exigidas por el artículo 22 del R.D. 887/2006 de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, General de Subvenciones, se verificará automáticamente por el Ayuntamiento, mediante consulta en las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto.

Hala ere, onuradunak berariaz egin ahal izango dio aurka egiaztapen horri; kasu horretan, izaera hori egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu bere kabuz.

No obstante, el beneficiario podrá oponerse expresamente a dicha verificación, en cuyo caso deberá aportar por sí mismo, los certificados actualizados que acrediten esta condición.

- Dirulaguntzaren bigarren ordainketa denboraldiko Kirol Jardueren justifikazioa jaso ondoren, diru laguntzaren xede zen jarduera, proiektua, helburua edo ezarpena gauzatu izana egiaztatzen duena, jarraian adierazitako dokumentazioaren bitartez:

- Burututako jardueraren laburpen txostena.
- Jardueren memoria ekonomikoa. Gastuaren justifikazioa, faktura edo dokumentuen kopiak eta zerrenda (zenbakia, data, kontzeptua eta zenbatekoa), elkarteko Diruzainak sinatua.
- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarrera edo dirulaguntza guztien erantzukizunpeko adierazpena, elkarrearen diruzainak sinatutakoa, horien zenbatekoa eta jatorria adierazita. Baita jarduera horrekin lotutako beste sarrerarik ez dela egon, eta bestelako sarrerarik jasoko balute, horren berri izan bezain pronto Udalari

- Un segundo importe previa justificación de la realización de la actividad, proyecto, objetivo o adopción del comportamiento para el que se concedió la subvención, mediante la entrega de la siguiente documentación:

- Memoria resumen de las actividades realizadas.
- Justificación del gasto de las actividades, relación de copias o facturas de facturas o documentos (número, concepto y cantidad) firmada por el Tesorero.
- Una declaración responsable, firmada por el/la Tesorero/a de la asociación, de la totalidad de ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia. También que no han tenido ningún otro ingreso y el compromiso de comunicar al Ayuntamiento la obtención de cualquier



jakinaraziko lioketela.

- Garatutako jardueraren esparruan sortutako publizitatea, iragarkiak eta dokumentazio grafiko eta idatziaren ale bat.

Hitzarmenaren xede den diru laguntza jaso ahal izateko, onuradunak ez du inolako bermerik eskaini beharko.

Hitzarmen honen xede den diru laguntza 2024 ekitaldirako indarrean dagoen aurrekontuko 0261.481.341.00.18 partidari egotziko zaio, behar bezalako nahikoa kreditu duena.

otro tipo de subvención o ayuda para este fin.

- Publicidad, anuncios y un ejemplar de la publicidad, propaganda y documentación gráfica y escrita generada en la actividad desarrollada.

Para la subvención objeto del presente Convenio no se exigirá al beneficiario la prestación de garantía de ninguna clase.

La subvención objeto del presente Convenio se imputará a la partida presupuestaria 0261.481.341.00.18 del vigente presupuesto municipal para el año 2024, dotado con crédito adecuado y suficiente.

LAUGARRENA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz lagundu daitezke erabat beharrezkoak diren gastuak, jardueraren izaerarekin inolako zalantzarik gabe lotura dutenak eta diruz lagundutako jarduerak egikaritzeko aurreikusitako epearen amaiera baino lehen sortzen direnak. Honela, diruz laguntzeko moduzkotzat joko dira wushu kung-fu jardueraren garapena 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra bitartean proiektuaren garapen eta egikaritzetik sortu edo eratorritako gastu arrunt guztiak, betiere aldi horretan zehar modu eraginkorrean egikaritu badira. Egikaritutako gastu gisa ulertuko da hitzarmen honetan ezarritako justifikazio epea amaitu aurretik modu eraginkorrean ordaindu dena.

Ez dira inolaz ere diruz laguntzeko moduko gastuak izango:

- a) Banku kontuetako interes zordunak.
- b) Interesak, errekarquak eta zigor

CUARTA. SUBVENCIONABLES GASTOS

Se considerarán subvencionables aquellos gastos que resulten estrictamente necesarios, respondan de manera indubitada a la naturaleza de la actividad y se realicen con anterioridad a la finalización del plazo previsto para la ejecución de las actividades subvencionadas. De este modo, se estimarán subvencionables todos los gastos corrientes producidos o realizados del 1 de enero de 2024 hasta el 31 de diciembre del 2024 con motivo del desarrollo y ejecución del proyecto de desarrollo de la actividad de wu-shu kung-fu, proyectos efectivamente ejecutados en los periodos especificados. Se conceptuará gasto realizado el que haya sido efectivamente pagado con anterioridad a la finalización de los periodos de justificación establecidos en el presente convenio.

En ningún caso serán gastos subvencionables:

- a) Los intereses deudores de las cuentas bancarias.
- b) Intereses, recargos y sanciones



- administratibo edo penalak.
 c) Prozedura judizialeko gastuak.
 d) Zuzeneko zergak, berreskuratu edo konpentsatu badaitezke.
 e) Errentaren gaineko zergak.

- administrativas y penales.
 c) Gastos de procedimientos judiciales.
 d) Impuestos directos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación.
 e) Impuestos sobre la renta.

BOSGARRENA. BATERAGARRITASUNA LAGUNTZA BATZUEKIN

BESTE

QUINTA. COMPATIBILIDAD CON OTRAS AYUDAS

Diru laguntza hau bateragarria izango da helburu bera duten diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide guztiekin, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk emandakoak, edo Europar Batasunak edo nazioarteko erakundeetakoak badira ere.

Se establece la compatibilidad de esta subvención con todas las subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

Zentzu horretan eta diru laguntzen Lege orokorraren 19.3 artikuluan xedatutakoa betez, jasotako diru laguntza guztien zenbatekoa ez da inolaz ere izango, bere horretan edo beste diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

En este sentido y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 19.3 de la LGS, el importe de todas las subvenciones percibidas, en ningún caso, podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

Jarduerak finantzatzeko, diru laguntzaz gain, funts propioak edo beste diru laguntza edo baliabide batzuk erabili badira, justifikazioan diruz lagundutako jardueretarako erabilitako funts horien zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa zehaztu beharko dira.

Cuando las actividades hayan sido financiadas, además de con la subvención, con fondos propios u otras subvenciones o recursos, deberá acreditarse en la justificación el importe, procedencia y aplicación de tales fondos a las actividades subvencionadas.

SEIGARRENA. DIRU LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA.

SEXTA. JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN

Ezarritako baldintzak bete izanaren eta emakidan aurreikusitako helburuak lortu izanaren justifikazioa dokumentatu egingo da justifikatzeko kontu emate baten bitartez. Kontu emate hori onuradunaren derrigorrezko egintza izango da eta barne hartu beharko ditu, deklaratzaileraren erantzukizunpean, diru laguntzaren helburua bete dela egiaztatzea ahalbidetzen duten gastu egiaztariak edo balio juridikoa duen beste edozein

La justificación del cumplimiento de las condiciones impuestas y de la consecución de los objetivos previstos en la concesión, se documentará a través de la rendición de la cuenta justificativa, que constituye un acto obligatorio del beneficiario, en el que se deben incluir, bajo la responsabilidad del declarante, los justificantes del gasto o cualquier otro documento con validez jurídica que permita acreditar el cumplimiento del



dokumentu. Justifikatzeko kontu ematea burutu beharko da 2024ko azaroaren 15a data baino lehen, Udalaren aurrean aurkeztuta emandako diru laguntzaren erabilera justifikatzeko dokumentazio hau:

- 1.- Burututako jardueren laburpen txostena.
- 2.- Jardueren gastuaren justifikazio txostena.

Diru laguntzen Lege orokorraren 31.3 artikulua araberak Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeak kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gaitzen dituen kasuetarako, onuradunak hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez. Hori horrela, onuradunak mota horietako gastuak izango balitu jardueraren gastuen justifikazio txostenean, gastu horiek eman aurretik hiru eskaintza eskatu dituela adierazi beharko du, beti ere, kontratatu nahi den obra, hornidura edo zerbitzua emateko beste aukerarik ez badago kontratuaren objektuaren ezaugarri bereziengatik edo merkatuan ez badago behar adina erakunde horiek egin, mailegatu edo hornitzen dituenik.

Diruz lagundutako jardueretan kantitate txikiko gastuetan faktura osoak aurkezteko zailtasunak daudenean, faktura sinplifikatuak (aurreko tiketa) onartu daitezke hauekin batera elkartearen aitorpena aurkeztuz jarduerarekin loturiko gastuak direla eta beti ere Fakturatzeko betebeharra arautzen duen Erregelamendua, azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuak jarraituz.

- 4.- Garatutako jardueraren esparruan sortutako publizitatea, iragarkiak eta dokumentazio grafiko eta idatziaren ale bat.

objetivo de la subvención. La presentación de la cuenta justificativa se realizará como máximo antes del 15 de noviembre de 2024 aportando, ante el Ayuntamiento la siguiente documentación justificativa de empleo de subvención otorgada:

- 1.- Memoria resumen de las actividades realizadas.
- 2.- Justificación del gasto de las actividades.

Según el artículo 31.3 de la Ley General de Subvenciones Para los casos en que el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas por la Ley de Contratos del Sector Público para el contrato menor, el beneficiario deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores. Así, en el supuesto de que el beneficiario incurriera en este tipo de gastos en la memoria justificativa de los gastos de la actividad, deberá hacerse constar que ha solicitado tres ofertas con carácter previo a la concesión de los mismos, siempre que no exista otra posibilidad de realizar la obra, el suministro o el servicio que se pretende contratar, debido a las especiales características del objeto del contrato o cuando no exista en el mercado suficiente número de entidades que los realicen, presten o suministren.

Cuando en las actividades subvencionadas existan dificultades para la presentación de facturas completas en gastos de pequeña cuantía, se podrán admitir facturas simplificadas (ticket anterior) acompañadas de declaración de la asociación en relación con los gastos relacionados con la actividad y siempre de acuerdo con el Real Decreto 1619/2012, de 30 de noviembre, por el que se regula la obligación de facturación.

- 4.- Publicidad, anuncios y un ejemplar de la publicidad, propaganda y documentación gráfica y escrita generada en la actividad desarrollada.



ZAZPIGARRENA.	JARRAIPEN,	SÉPTIMA.	MECANISMOS	DE
ZAINZTA	KONTROL	SEGUIMIENTO,	VIGILANCIA	Y
MEKANISMOAK		CONTROL		

Jarraipen Batzorde Misto parekide bat sortuko da, alderdi sinatzaile bakoitzaren aldetiko ordezkari batekin, Udaleko Alkateak eta erakunde onuradunaren organo eskudunak izendatuko dituztenak, eta batzorde horren helburuak izango dira hitzarmena sustatzea eta haren jarraipena burutzea, ager litezkeen zalantzak argitzea eta hitzarmena ebaluatzea.

Se establecerá una Comisión Mixta de Seguimiento paritaria formada por un representante de cada parte firmante, nombrados por el Alcalde del Ayuntamiento y por el órgano competente de la entidad beneficiaria, que tendrá como funciones el impulso y seguimiento del convenio, resolver las dudas que puedan plantearse y realizar su evaluación.

Batzorde honek eginkizun hauek izango ditu:

- Hitzarmenaren eta sinatzaileek izenpetutako konpromisoen egikaritzearen zaintza eta kontrola.
- Hitzarmenaren egikaritzean ager litezkeen interpretazio eta betetze arazoak ebaztea.

Esta comisión desarrollará las siguientes funciones:

- Vigilancia y control de la ejecución del convenio y de los compromisos suscritos por los firmantes.
- Resolución de los problemas de interpretación y cumplimiento que pudiera plantear la ejecución del convenio.

Hitzarmen honetan berariaz aurreikusi ez diren kasuetarako, batzordea arautuko da, 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 15. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, administrazio publikoetako kide anitzeko organoen funtzionamendua arautzen dutenak, alegia.

La comisión se regirá, en lo no expresamente previsto en el presente Convenio, por lo dispuesto en los Art. 15 y siguientes de la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público, reguladores del régimen de funcionamiento de órganos colegiados de las administraciones públicas.

ZORTZIGARRENA.	ONARTUTAKO	OCTAVA.CONSECUENCIAS	DEL
BETEBEHARRAK	ETA	INCUMPLIMIENTO	DE
KONPROMISOAK	BETETZEAREN	OBLIGACIONES	Y COMPROMISOS
ONDORIOAK		ASUMIDOS	

Sinatzaileetako batek onartutako betebeharrak eta konpromisoak beteko ez balitu, ez betetzea burutu duen alderdiari jakinarazpena helarazi beharko zaio, epe jakin baten barruan bete ez direla uste den betebeharrak eta konpromisoak bete ditzan. Ezarritako epea amaituta, ez betetzeak jarraituko balu, hitzarmena suntsiarazi egingo da.

En el supuesto de incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por parte de alguno de los firmantes, se requerirá notificar a la parte incumplidora para que cumpla en un plazo determinado con las obligaciones y compromisos que se consideran incumplidos. Si transcurrido el plazo que se fije, persistiera el incumplimiento, se entenderá resuelto el convenio.



Diru laguntzaren onuradunak onartutako betebeharrak eta konpromisoak bete ez balitu, emandako zenbatekoaren zati proportzionala itzuli beharko du, gehi diru laguntza ordaindu zen momentutik dagozkion berandutze interesak.

El incumplimiento de las obligaciones y compromisos por parte del beneficiario de la subvención implicará el reintegro proporcional del importe concedido, más los intereses de demora que correspondan desde el momento del pago de la subvención.

Jasotako zenbatekoen erabateko itzulera edo itzulera partziala burutu beharko da hitzarmen honetan aurreikusitako baldintzak edo udal kontu hartzailetza edo organo eskudunak ezarritako justifikazio betekizunak betetzen ez badira, bai eta diru laguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako kasuetan ere.

Procederá el reintegro total o parcial de las cantidades recibidas en el supuesto de incumplimiento de las condiciones del presente convenio o requerimientos de justificación que pueda hacer la intervención o el órgano municipal competente, así como por el resto de circunstancias reguladas en los artículos 37 y siguientes de la Ley general de subvenciones.

BEDERATZIGARRENA. HITZARMENA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

NOVENA. CAUSAS DE RESOLUCIÓN DEL CONVENIO

Suntsiarazteko arrazoiak izango dira:

Son causas de resolución del convenio:

- Ezarritako indarraldia amaitzea, hau da, 2024ko abenduaren 31.
- Alderdi sinatzaileen arteko ahobatezko akordioa.
- Alderdietako batek bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak ez betetzea.
- Hitzarmena baliogabetzat jotzen duen erabaki judiziala.

- El transcurso del plazo de vigencia establecido, esto es, el 31 de diciembre de 2024.
- Por acuerdo unánime de las partes firmantes.
- El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por las partes.
- Por decisión judicial, que declare nulo el convenio.

Hitzarmena suntsiarazteak azkendu egingo ditu alderdiek onartutako betebeharrak eta konpromisoak, eta baita prestazioen likidazioa ere. Helburu horietarako, aplikagarria izango da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 52. artikuluan xedatutakoa, suntsiaraztearen ondorioei eta likidazio eta kalte ordainen araubideari dagokienez.

Los efectos de la resolución del convenio supone la extinción de las obligaciones y compromisos asumidos por las partes y la liquidación de las prestaciones. A tales efectos, se aplicará lo dispuesto en el artículo 52 de la Ley de Régimen Jurídico del Sector Público, en cuanto a los efectos de la resolución y al régimen de liquidación e indemnización.

Hitzarmenaren helburuak bete direla ulertuko da haren xedea burutu bada bi alderdientzat onargarriak diren

Se entenderán cumplidos los objetivos del convenio cuando su objeto se haya realizado en los términos y a satisfacción



baldintzetan.

de ambas partes.

Egikaritze prozesuan dagoen jarduketarik egongo balitz, alderdiek, jarraipen, zaintza eta kontrol batzordearen proposamenari jarraituta, abian dauden jarduketan jarraipena eta amaiera adostu ahalko dute, horiek amaitzeko epe luzaezina ezarrita.

Si existieran actuaciones en curso de ejecución, las partes a propuesta de la comisión de seguimiento, vigilancia y control, podrán acordar la continuación y finalización de las actuaciones en curso que consideren oportunas, estableciendo un plazo improrrogable para su finalización.

HAMARGARRENA. PERTSONALEN ARAUBIDEA

DATU BABESERAKO

DÉCIMA. RÉGIMEN DE PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES

Datuen babeserako araubideari dagokionez, Udalak eta LOREA KIROL KLUBAK 3/2018 Lege Organikoak, abenduaren 5ekoak, datu pertsonalak babestekoak eta eskubide digitalak bermatzekoak, aurreikusitako derrigorrezko xedapenak errespetatu beharko dituzte.

En cuanto al régimen de protección de datos, el Ayuntamiento y LOREA KIROL KLUBA atenderán las disposiciones de obligado cumplimiento establecidas en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

Beraz, hitzarmenaren garapenaren ondorioz jasotzen diren datu pertsonalak alderdi sinatzaileen erantzukizunpekoak diren datu fitxategietan sartuko dira eta hitzarmenean aurreikusitako obligazioak betetzeko soilik tratatuko dira.

En consecuencia, los datos personales que se recojan como consecuencia del desarrollo del convenio serán incorporados a los ficheros de datos responsabilidad de las partes firmantes y serán tratados únicamente a los efectos de cumplir las obligaciones previstas en el convenio.

HAMAIKAGARRENA. HITZARMENAREN INDARRALDIA

ÚNDECIMA. PLAZO DE VIGENCIA DEL CONVENIO

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea indarrean sartu ondoren, eta haren 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, hitzarmenaren indarraldia ez da izango 4 urtetik gorakoa, alderdiek aho batez luzapen bat edo gehiago adosteko aukera kaltetu gabe, gehienez ere lau urtetan zehar hasierako epea amaitu zenetik.

Tras la entrada en vigor de la Ley de Régimen Jurídico del Sector Público, y según establece su artículo 49, el plazo de vigencia de los convenios no podrá ser superior a 4 años, sin perjuicio de la posibilidad de que las partes acuerden unánimemente una o varias prórrogas por un plazo máximo de cuatro años desde la finalización del plazo originario.

Hitzarmen honek legezko xedapen hau betetzen du, sinatu zenetik 2024ko abenduaren 31ra bitarteko indarraldia baitu. Hitzarmenak ez du luzapenik onartzen.

El presente Convenio se ajusta a esta previsión legal, al tener una vigencia desde su firma y hasta el 31 de diciembre de 2024. No admite prórrogas.



HAMABIGARRENA. ARAUBIDE DUODÉCIMA. RÉGIMEN JURÍDICO Y JURIDIKOA ETA JURISDIKZIOA JURISDICCIÓN

Hau izango da legeria aplikagarria:

La legislación aplicable será:

- Udalaren 2024. urteko Aurrekontu Orokorra, Beasaingo Udaleko Osoko Bilkuraren 2023ko abenduaren 1eko Akordio bidez onartu zena.
- Beasaingo Udalaren Diru Laguntzen Plan Estrategikoa, 2023-2025 aldirakoa, 2022ko abenduaren 13ko 2022/1979 Alkatetza Ebazpen bidez onartu zena.
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru Laguntzen Lege Orokorra.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.
- Beasaingo Udaleko diru laguntzen udal ordenantza arautzailea, Osoko Bilkuraren 2006ko azaroaren 30eko Akordio bidez onartu zena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, 4. artikuluan berariaz xedatutakoaren arabera, hitzarmenak legearen aplikazio eremutik kanpo uzten dituen, lege horren printzipioak ager litezkeen zalantzak eta gabeziak argitu eta osatzeko aplikagarriak izan arren.
- Presupuesto General del Ayuntamiento, aprobado por Acuerdo de 5 de diciembre de 2023 del Pleno del Ayuntamiento de Beasain.
- El Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Beasain, para el periodo 2023-2025, aprobado por el Resolución de Alcaldía 2022/1979 de fecha 13 de diciembre de 2022
- La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- La Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
- Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.
- Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- Ordenanza municipal reguladora de subvenciones del Ayuntamiento de Beasain, aprobada por Acuerdo Plenario de 30 de noviembre de 2006.
- Ley 9/2017 de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, de cuyo ámbito de aplicación, conforme dispone su Art. 4, quedan expresamente excluidos los convenios, si bien sus principios serán aplicables para la resolución de dudas y lagunas que pudieran presentarse.



Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da alderdien artean ager litezkeen interpretazio, arazo eta egikaritze gaiak ebazteko eskuduna.

La jurisdicción contencioso-administrativa será la competente para resolver las cuestiones que en interpretación, cumplimiento y ejecución, pudieran suscitarse entre las partes.

HAMAHIRUGARRENA. BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK.

DECIMOTERCERA. MEDIOS MATERIALES Y PERSONALES.

LOREA KIROL KLUBAK hitzarmen honetatik eratorritako obligazioak betetzeko beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak izango ditu, baina haren langileek ez dute inolaz ere izango lan arloko loturarik edo lotura juridikorik Beasaingo Udalarekin.

LOREA KIROL KLUBA contará con los medios materiales y el personal necesario para atender las obligaciones derivadas del presente convenio, personal que en ningún caso tendrá vinculación jurídico-laboral con el Ayuntamiento de Beasain.

LOREA KIROL KLUBAK hitzarmen honetatik eratorritako jardueren garapenean, errespetatu egingo du 1/1996 Lege Organikoak, adingabearen gaineko babes juridikoari buruzkoak, xedatutakoa eta, zehazki, haren 13.5 artikuluan eskatutako akreditazioari dagokionez, adingabeekin harremana dakarten lanbideak, ogibideak eta jarduerak burutzeko kasuan.

Se observará por LOREA KIROL KLUBA en el desarrollo de las actividades derivadas del presente convenio lo establecido en la Ley orgánica 1/1996 de Protección Jurídica del menor, y en concreto lo referente a la acreditación exigida en su Art. 13.5, sobre al ejercicio de profesiones, oficios y actividades que impliquen contacto habitual con menores.

HAMALAU GARRENA. DIRU LAGUNTZA ITZULTZEA

DECIMOCUARTA. DEVOLUCIÓN DE LA SUBVENCIÓN

Diru Laguntzen Lege Orokorraren Erregelamenduaren 90. artikuluan xedatutakoaren arabera, onuradunak jasotako zenbatekoa modu boluntarioan itzuli ahalko du, Udalak aurretiaz halakorik eskatu gabe.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 90 del Reglamento de la Ley General de Subvenciones, el beneficiario podrá proceder al reintegro voluntario de la cantidad percibida, sin haber sido previamente requerido por el Ayuntamiento.

Kasu horretan, diru laguntzaren onuradunak Beasaingo Udalaren aldeko banku transferentzia bat burutu beharko du. Diru sarreran zehaztu beharko dira diruz lagundutako jarduera, espediente zenbakia eta onuradunaren identifikazio datuak.

En este caso, el beneficiario de la subvención deberá realizar una transferencia bancaria a favor del Ayuntamiento de Beasain. En el ingreso se deberá identificar la actividad subvencionada, número de expediente e identificación del beneficiario.



HAMABOSGARRENA. EBAZTEA

GATAZKAK DÉCIMOQUINTA. RESOLUCIÓN DE CONFLICTOS

Hitzarmen honen aplikaziotik erator litezkeen interpretazio, aldaketa, suntsiarazte eta ondorioen inguruan ager litezkeen gatazkak alderdien arteko akordio bidez ebatziko dira eta, halakorik ezean, alderdi hauek administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoak izango dira.

Las cuestiones litigiosas surgidas sobre la interpretación, modificación, resolución y efectos que pudieran derivarse de la aplicación de este Convenio, deberán solventarse de mutuo acuerdo entre las partes y, en defecto de acuerdo, el conocimiento de estas cuestiones corresponderá a la Jurisdicción Contencioso-administrativa.

Adierazitakoaren arabera eta sinatzaileei dagozkien ahalmenak baliatuta, hitzarmen hau izenpetu dute.

De conformidad con lo expuesto y en el ejercicio de las atribuciones de las que son titulares los firmantes, suscriben el presente Convenio.

